| 2017KO OTSAILAREN 14AN, LEHENENGO DEIALDIAN GETXO KIROLAKEK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA | ACTA DE LA SESION ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR EL CONSEJO RECTOR, EL DIA 14 DE FEBRERO DE 2017 |
|---|---|

Alvaro GONZALEZ PEREZ Jn.

| BERTARATUTAKO BOKALAK | VOCALES ASISTENTES |
|---|---|

AGIRRE MUNOA, Amaia and.
AMIEVA CLEMENTE, Paula and.
ANDRADE AURRECOECHEA, Eduardo jn.
ARRAIZA ARAMENDIA, Maite and.
CORIA YANGUAS, Elena and.
COS YAÑEZ, Susana de and.
EIGUREN ALBERDI, Keltse and.
IBABE BOTELLA, Miguel jn.
ITURBE MENDILIBAR, Koldo jn.
ITURRALDE FERNANDEZ, Oier jn.
LANDA ARTECHE, José Luis jn.
OLASO GARCIA, Enrique jn.
PRADA OLLETA, Enrique jn.
RODRIGUEZ LARRINAGA, Ibon jn.
SAINZ ROBLES, Santiago jn.
URIARTE GOROSTIAGA, Ignacio jn.

| IDAZKARIA | SECRETARIO |
|---|---|

Juan Ig. ASTORKITZA MOTA jn.

Getxon, 2017ko otsailaren 14an, arratsaldeko 17:00etan, ohiko bileran bildu da Zuzendaritza Batzordea Udaltzaingoko batzar-aretoan, goian aipatutako pertsonak batu direlarik.

En Getxo, a las 17:00 horas del día 14 de febrero de 2017 se reúne en sesión ordinaria, en la Sala de Reuniones de la Policía Municipal, el Consejo Rector con la asistencia de las personas que arriba se relacionan.

73.- 2017ko URTARRILAREN 17ko OHIKO BILERAKO AKTA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO

73.- APROBACION, SI PROCEDE, DEL ACTA DEL CONSEJO RECTOR ORDINARIO DEL 17/01/2017

Aho batez onartu dute 2017/01/17ko akta

Se aprueba, por unanimidad de las personas presentes, el acta del día 17/01/2017.

INFORMAZIO OROKORRA

INFORMACION GENERAL

1.- KALITATE-ZIURTAGIRIA

Lehendakari jaunak talde politiko bakoitzari banatu dio gure kudeaketa-sistemaren kalitate-ziurtagiria; ziurtagiri horrek ziurtatzen du ISO 9001-2015 arauaren araberakoa dela, 3 urteko denboraldirako.

1.- CERTIFICADO DE CALIDAD

El Sr. Presidente entrega a cada grupo político el certificado de calidad de nuestro sistema de gestión, por el que se certifica que es conforme a la norma ISO 9001-2015 por un periodo de 3 años.

2.- GOBELA POLIKIROLDEGIKO ORDUTEGIA

Lehendakari jaunak adierazi du, martxoaren 6tik aurrera, Gobela polikiroldegiko instalazioak 7:30ean irekiko direla. Lehen esan zuten garbiketa-kontratua behin betiko esleitutakoan irekiko zutela ordu horretan, baina egungo esleipendunaren aurka jarritako beste errekurtso batengatik (KEAOk horren aldeko ebazpena eman du) berriro lehiaketara atera beharko da. Beraz, ez gara lizitazio berriaren emaitzaren zain egongo; izan ere, gure

2.- HORARIO POLIDEPORTIVO GOBELA

El Sr. Presidente informa que, a partir del día 6 de marzo, las instalaciones del polideportivo Gobela se abrirán a las 7,30 horas; que, aunque se había comentado que se abriría cuando se hubiera adjudicado definitivamente el contrato de limpieza, y, como quiera que hay que volver a sacar a concurso el mismo por otro recurso contra la actual adjudicataria, que ha sido resuelto favorablemente por el OARC, no vamos a

AKI sistemaren bitartez, abonatuek eskatu zuten Fadurako polikiroldegiaren irekiera-ordutegi bera izateko, eta ordu horretan irekiko dugu.

esperar el resultado de la nueva licitación, y así damos respuesta a las numerosas peticiones que, a través de nuestro sistema de AQS, las personas abonadas habían solicitado tener el mismo horario de apertura que el polideportivo Fadura.

GALDE-ESKEAK

RUEGOS Y PREGUNTAS

Lehendakari jaunak esan du bi galdera dituela: bata PPrena eta bestea GUK taldearena.

El Sr. Presidente informa que tiene dos preguntas, una del PP y otra de GUK.

Jarraian, PPren galdera irakurri du; hitzez hitz honela esaten du:

A continuación da lectura de la del PP, cuyo tenor literal es el siguiente:

Honen bitartez, Udal honetako Udal Talde Popularrak jakin nahi du Gobela Polikiroldegiko taberna/kafetegiaren kontratua indarrean dagoen, eta, horrela egonez gero, noiz bukatzen den. Era berean, emakida berria indarrean noiz sartuko den jakinaraztea eskatzen dugu.

Por la presente el Grupo Municipal Popular en este Ayuntamiento, solicita información sobre si está en vigor el contrato de la cafetería/bar del Polideportivo Gobela, en caso afirmativo cuando finaliza. Asimismo rogamos se nos informe sobre cuando entrará en vigor la nueva concesión.

Lehendakari jaunak adierazi du kontratua duela hamahiru urte amaitu zela, eta, indarrean den Adikzioen lege berriarekin, horren araberako pleguak egin behar izan direla. Bi pertsonari egingo zaie esleipena eta ABEE bat osatuko dute. Eskaintza oso interesgarria da, tabernaren ohiko ustiapenaz aparteko alderdiak ere jasotzen baitira. Esleipen-kontratua sinatutakoan, lizitazioaren irabazlearen berri emango die talde politikoei.

El Sr. Presidente informa que el contrato finalizó hace trece meses y que, con la nueva ley de adicciones en vigor, se han tenido que elaborar unos pliegos en consonancia con los mismos; que la adjudicación recae sobre dos personas que formarán una UTE y considera que la oferta es muy interesante, ya que hay otros aspectos diferentes de la típica explotación de un bar; igualmente informa que cuando se firme el contrato de adjudicación dará traslado a los grupos políticos de la oferta ganadora de la licitación.

Ondoren, GUK taldearen galdera irakurri du:

Seguidamente da lectura de la de GUK:

Urtarrilaren 31n (asteartea) itzalaldia egin zen Getxoko zona ezberdinetan, iluntzeko 21:00ak aldera. Udal polikiroldegietan larrialdiko argirik ez izatearen inguruan hainbat erreklamazio jaso ditugu, zehazki, Gobelan, bertatik ateratzen laguntzeko larrialdiko argirik ez egoteagatik. Zentro horietan zenbat denboratik egiten dira mantentze-lanen eta segurtasunaren gaineko berrikuspenak? Irregulartasun hori noizko konponduko dute?

El pasado martes 31/01 hubo un apagón en varias zonas de Getxo sobre las 21:00 horas. Nos han llegado varias reclamaciones relacionadas con la falta de luces de emergencia en polideportivos municipales, concretamente, en el de Gobela, no había luces de emergencia que ayudan a salir de las instalaciones. ¿Cuál es la periodicidad de las revisiones de mantenimiento y seguridad en estos centros? ¿En qué plazo se comprometen a subsanar esta irregularidad?.

Lehendakariak adierazi du horren inguruan txosten txiki bat duela. Egia da urtarrilaren 31n hornidura elektrikoa lau aldiz eten zuela Iberdrolak, Romon, Areetan eta Leioan, 21:15 aldera.

El Sr. Presidente dice que tiene un pequeño informe que lo pasa a comentar, y, efectivamente, el pasado 31 de enero hubo cuatro cortes de suministro eléctrico, por parte de Iberdrola, en las zonas de Romo, Las Arenas y Leioa sobre las 21,15 horas.

Kasu horietarako, ekipo elektrogenoa dugu, gasoilarekin dabilena, eta 4 ordurako autonomia du.

Para ello disponemos de un grupo electrógeno, que es de gasoil y cuya autonomía es de 4 horas.

Ekipo elektrogenoa lanean hasi zen lehen itzalaldian, eta berriro argia ohi bezala eduki genuen. Baina hornidura berriz emandakoan, sorgailua itzali egiten da, eta bigarren itzalaldia gertatzen denean, sorgailua jada ez da pizten.

El grupo electrógeno entra en funcionamiento al producirse el primer apagón y volvió a haber iluminación normal, pero cuando se reanuda el suministro, el generador se apaga, y cuando se produce el segundo apagón el generador ya no se enciende.

Mantentze-lanen buruaren arabera, SAI bat instalatu behar da instalazioak kontrolatzeko sistemaren ordenagailurako.

La solución, me ha dicho el jefe de mantenimiento, está por instalar un SAI para el ordenador del sistema de control de las instalaciones.

Berrikuspenari dagokionean, fluoreszenteak nahiz larrialdi-lanparak azken aldiz abenduan berrikusi ziren.

En cuanto a la revisión, tanto de fluorescentes como lámparas de emergencia, la última se realizó en el mes de diciembre.

Egia da bigarren itzalaldian larrialdi-argirik ez zegoela, eta pertsona batek instalazioetan zegoen laguntzailearen laguntza eskatu behar izan zuen; gainerakoak ondo konpondu ziren.

Mantentze-lanen enpresarekin harremanetan jarri gara SAI instalatzeko, zenbat kostako den ez dakigun arren.

Prada jaunak esan du irtenbidea bilatu behar dela bi polikiroldegietarako.

Lehendakari jaunak erantzun dio bi polikiroldegien funtzionamendua ezberdina dela. Gobela, teorian, polikiroldegi modernoagoa da, eta funtzionatzeko beste sistema bat du, argien beste sistema bat; Fadurakoa, aldiz, zaharragoa da, eta modernoan egin ezin daitezkeen gauzak egin daitezke.

Berriro esan du SAI erosiko dutela, eta ebazpenen batean ikusiko dutela.

Beste gairik gabe, saioari amaiera eman zaio akta honetako goiburuan aipaturiko eguneko 17:10etan.

Lehendakaria / El Presidente

Si es cierto que con el segundo apagón no había luces de emergencia y hubo una persona que tuvo que solicitar ayuda del auxiliar que se encontraba en las instalaciones y las demás personas se arreglaron bien.

Nos hemos puesto en contacto con la empresa de mantenimiento para la instalación del SAI, aunque desconocemos el coste del mismo.

El Sr. Prada dice que se busque solución para los dos polideportivos.

El Sr. Presidente contesta que no funcionan igual ambos polideportivos; que Gobela, en teoría, es un polideportivo más moderno que tiene otro sistema de funcionamiento, otro sistema de luces; el de Fadura es más antiguo y permite hacer cosas que no hace el moderno.

Insiste en que se adquirirá el SAI y que ya lo verán en alguna resolución.

Sin más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 17:10 horas del día mencionado en el encabezamiento de la presente acta.

Idazkaria / El Secretario